

ZARAUZKO UDAL PLANGINTZAKO AHOLKU BATZORDEAREN ERREGELAMENDUA

Hasierako testua 2006ko abenduaren 27an egindako osoko bilkuran onetsi zuen Udalbatzarrak eta 2007ko martxoaren 14an argitara eman zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean

Erregelamenduaren aldaketa 2012ko maiatzaren 30ean egindako osoko bilkuran onetsi zuen Udalbatzarrak eta 2012ko abuztuaren 1ean argitara eman zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

ARRAZOIEN AZALPENA

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 20. artikuluan xedatutakoaren indarrez, eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean xedatutakoaren arabera, eratu da Udal Plangintzako Aholku Batzordea Zarauzko Udalean, herritarrek udal-plangintzaren arloan parte hartzeko kontsulta-organo gisa. Izan ere, iraunkortasunaren aldeko Europako Hirien Karta (Aalborg-eko Karta) onartu zuen Udalbatzak 2001eko martxoan, eta konpromiso horri jarraituz eratu da batzorde hori.

Hirigintzaren arloan, eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 109. artikulua ezartzen duenaren arabera, hiri-plangintza behin betiko onartzeko eskumena duten udalerrri guztiek nahitaez eratu behar dute Udal Plangintzako Aholku Batzorde bat, herritarrek parte hartu ahal izateko mekanismoak sustatzearen. Hirigintza-planen dokumentazioari erantsiko zaizkion programak formulatuta, esate baterako, gauzatu ahal izango da herritarren parte-hartze hori. Batzorde horrek goraxeago aditzera emandako helburuak ez ezik, toki-entitatearen hirigintza-antolamendurako tresna nagusiak -eta batez ere Plan Orokorren inguruko zehaztapenak- formulatzen eta onartzen laguntzea du helburu. Azkenik, Lege horren 110. artikulua adierazten duenez, onartu beharreko Batzorde horren Erregelamenduan finkatu behar dira Batzordearen eraketa eta haren oinarrizko ezaugarriak.

Hori dela eta, Erregelamendu horrek udalerriko Udal Plangintzako Aholku Batzordearen eraketa eta funtzionamendua arautzea du helburu, betiere gizarteak hiri-plangintza estrategikoan eta udalerrian garapen iraunkorra bideratzeko eta sustatzeko ahaleginean parte hartu ahal izateko aukera emango duen aholku-organo kontsultibo gisa. Erregelamendu horren bidez, Udal

Plangintzako Aholku Batzordearen oinarritzko egitura, funtzioak eta araubide juridikoa, besteak beste, finkatzen dira, betiere Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 22. artikuluan aurreikusten den taldeko organo den aldetik.

Guzti horren ondorioz, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 110. artikuluan xedatutakoari jarraituz, egin da honako erregelamendua.

ALDAKETEN ARRAZOIEN AZALPENA

Udalbatzarrak 2006ko abenduaren 27an egindako bilkuran Zarauzko Udalplangintzako Aholku-batzordearen erregelamendua onartu zuen, eta hori ekainaren 30eko 2/2006 Legeak (Lurzoruari eta hirigintzari buruzkoak) eta tokiko araubideari buruzko legediak xedatutakoaren babesean. Erregelamendua 2007ko martxoaren 14an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Udal-plangintzako Aholku-batzordea, hain zuzen, aholkurako eta eztabaidarako tokiko organo legez jaio zen, zertarako eta hirigintza-planak egin, izapidetu eta onartzeko prozeduretan kontzertazio sozialeko funtzioak betetzeko.

Dena den, Zarautzen, lurzoruari buruzko lege berria egin eta aholku-batzordea eratu baino lau urte lehenago jarri zen abian udal-plangintza berraztertzeke plana. Hau da, Arau Subsidiarioak berrikusteko dokumentuaren hasierako onespena 2005eko uztailan onartu zuen Udalbatzarrak, eta 2006ko irailean erabaki zuen Zarauzko planeamenduaren berrikuspena Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeari egokitzea.

Egoera horrek modu nabarmenean eragin eta baldintzatu zuen aholku-batzordearen funtzionamendua. Eratu zenerako Udalak erabakita zituen plangintzako proposamen estrategikoak. Aholku-batzordean izandako eztabaidak oso aldaketa txikiak eragin zituen Udalak izapidetutako dokumentuan, ekarpen gehienak atzera bota baitziren. Harremana ez zen izan behar bezain emankorra, eta horrek haserrea eta frustrazio sentimendua sortu zituen zinegotzi ez ziren hainbat kiderengan.

Azken bi urteetan ez da aholku-batzordearen bilerarik egin. Bestetik, 2011ko

udal-hauteskundearen ostean Udalbatza berria eratu da. Hori dela eta, udalerrirereduaren eta lurralde antolaketaren informazio-batzordeak, 2011ko abenduaren 13an egindako bileran, proposamen hau onartu zuen aho batez:

Plangintzako Aholku Batzordea berpiztu eta bultzatu eta partaidetza zabaltzeko ahaleginak egitea eta, hala irizten bada, udal erregelamendua bera berritzea komenigarria den ala ez aztertu eta eztabaidatzea.

Ondorioz, erregelamendua aldatzeko proposamena idatzi da. Honako hauek dira proposamenaren berrikuntza nagusiak:

a. Aholku-batzordearen izaera eta funtzioak. Indartu egin da hirigintza proiektu eta prozeduretan ingurumenarekin zerikusia duen guztian izango duen parte-hartzea. Gainera, bermatu nahi da aholku-batzordeak hasiera-hasieratik (Udalak lehen erabakia hartu baino lehen) parte har dezala plangintza-prozesuetan.

b. Aholku-batzordearen osaera eta funtzionamendua. Handitu egin da zinegotzi ez diren kideen kopurua, lehen ordezkariarik ez zuten elkarteak (kultura, gizarte, kirol eta beste arloetakoak) sartu ahal izateko. Horrekin batera, gizonen eta emakumeen artean oreka lortzeko irizpidea sartu da.

Aholku-batzordeko kide guztien agintaldia berdina izatea nahi da. Horrenbestez, Udalbatzaren agintaldia amaitzen denean bukatuko da Aholku-batzordearena ere. Urte bakoitzean gutxienez ere ohiko bilkura bat egingo du, plangintza zenbateraino garatu den eta urte horretarako zein aurreikuspen dauden adierazteko.

Udal-plangintzako Aholku-batzordea desegin egingo da udal-hauteskundeak egiten diren unean. Udalbatza berria eratu eta gero, aholku-batzorde berria ere eratuko da.

c. Antolaketa eta kideen eskubide eta betebeharrak. IV. eta V. kapitulu berriak erantsi dira. Praktikan ez dute berrikuntza handirik ekartzen. Hala ere, erregelamenduan sartzea proposatu da, uste dugulako artikuluko horiek lagungarri izan daitezkeela zinegotzi izan ez eta administrazioko organoen funtzionamenduan eskarmenturik ez duten kideentzat.

d. Herri Kontsulta. Ahalmena ematen zaio Aholku-batzordeari herri kontsultak proposatzeko.

Horren guztiaren ondorioz egin da erregelamendua aldatzeko proposamena.

I. KAPITULUA

UDAL PLANGINTZAKO A HOLKU BATZORDEAREN IZAERA ETA FUNTZIOAK

1. artikulua. Udal Plangintzako Aholku Batzordearen sorrera

1. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 110. artikuluan aurreikusitakoaren indarrez, eratu da Zarauzko Udal Plangintzako Aholku Batzordea.

2. Aholku Batzorde hori hirigintza arloko informazio, eztabaida eta adostasunerako espazio iraunkor gisa eratu da, eta espazio horretan Udala, gizarte-eragileak, eragile ekonomikoak, ingurumen-eragileak eta, oro har, herritarrak bilduko dira.

3. Udal Plangintzako Aholku Batzordea parte-hartzeko tokiko organo osagarri bat da, elkarreek eta herritarren kolektiboek udalerriko gobernu-organoen erabakietan lagundu ahal izatea helburu duena.

2. artikulua. Atxikitzea

Udal Plangintzako Aholku Batzordea hirigintza arloko udal-organu eskudunari atxikitzen zaio.

3. artikulua. Izaera juridikoa

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean arautzen diren taldeko organoetako bat da Udal Plangintzako Aholku Batzordea.

4. artikulua. Funtzioak eta xedeak

1. Udal Plangintzako Aholku Batzordearen helburua izango da udalerriko hirigintza-antolamenduko edozein zehaztapenen inguruko kontsultak, txostenak eta proposamenak egitea, ofizioz zein interesdunak eskatuta.

2. Zehazki, honako funtzioak garatzea dagokio Udal Plangintzako Aholku Batzordeari:

2.1. Hirigintza arloko udal-informazioa jasotzea eta informazio hori eraginpean egon daitezkeen herritarren entitateei jakinaraztea eta helaraztea.

2.2. Udalak aintzat har ditzan proposatu diren hirigintza-antolamenduko zehaztapenentarako ekimenak, iradokizunak, proposamenak eta aukerak aztertzea, bidezko txostenen bitartez.

2.3. Herritarren parte-hartzea sustatzea, hirigintza-gaiei buruzko herri-kontsultak proposatzea, eta hiri-plangintzako dokumentuei erantsitako herritarren partaidetza-programaren aurreikuspenak modurik egokienean betetzen laguntzea.

2.4. Herritarren parte-hartzeari eta hiri-iraunkortasunari buruzko azterlanak egiteko eta proposamenak eta txostenak egiteko laguntza eta aholkuak ematea Udalari.

2.5. Proposatutako hirigintza-antolamenduko zehaztapenetan elkarreek eta entitateek lagundu eta esku hartu dezaten sustatzea.

2.6. Ondorengo espedienteetan parte hartu, eta aukerak eta proposamenak aztertu: poluzioaren prebentzioari eta kontrol integratuari buruzko legedian xedatutako baimenak emateko tramitatutako administrazio-prozeduretan; ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko legedian araututako ingurumen-inpaktuaren adierazpenetan; eta, oro har, uraren legedian aurreikusitako edo ingurumenarekin zerikusia duen edozein plan, programa eta proiekturen ondorioen ebaluazioan; eta, bereziki gai hauetan:

- Uren babesa
- Zarataren aurkako babesa
- Lurzoruaren babesa
- Ingurumen-kutsadura
- Landa eta hiri lurzoruaren antolaketa eta lurzoruaren erabilerak
- Naturaren kontserbazioa eta aniztasun biologikoa
- Mendi eta baso ustiapenak
- Hondakinen kudeaketa
- Produktu kimikoak, pestizidak eta biozidak
- Ingurumenean askatutako emisio, isuri eta substantziak
- Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa

3. Udal Plangintzako Aholku Batzordearen erabakiak eta proposamenak udalaren gobernu-organoetarako gomendiotzat hartuko dira; alabaina, organo horiek erantzun arrazoitua eman beharko diete baztertzen edo aldatzen diren gomendio guztiei.

5. artikulua. Aholku Batzordearen edukiak. Txostenak egitea

1. Udal Plangintzako Aholku Batzordeak Udalak lantzen edo ezartzen dituen hirigintza arloko plangintza eta jarduneko tresna, azterlan, programa, arteztaru eta jardun-ildo guztien berri izango du. Horrez gain, egiturazko antolamenduan eragina duten plangintza-tresnak lehen aldiz formulatzeko, tresna horiek guztiz edo zati batean berraztertzeke, edo tresna horietan aldaketa zehatzak egiteko espedienteetan txostenak egingo ditu -kasu guztietan eta nahitaez-.

2. Plan Orokorren, Sektorizazio Planaren edo Bateratze Planaren egiturazko antolamendua lehen aldiz formulatzeko edo guztiz edo zati batean berraztertzeke espedienteetan, nahitaezkoa izango da aurrerapen-dokumentuaren edukiari buruzko txostena egitea, baita (proposatutako edo Udalak jada onartutako) plangintza horien hasierako eta behin-behineko onespenerako dokumentuei buruzko txostena egitea ere. Txosten horiek dokumentuok onartu eta/edo jendaurrean jarri baino lehen egin beharko dira.

3. Plan Orokorren, Sektorizazio Planaren edo Bateratze Planaren egiturazko antolamendua zati batean aldatzeko espedienteetan, bestalde, nahitaezkoa izango da (proposatutako edo onartutako) hasierako onespenerako dokumentuaren edukiari buruzko txostena egitea. Aurrerapen-dokumentua baldin badago, plangintza horien hasierako onespenerako dokumentuari buruzko txostena ordezkatu ahal izango du aurrerapen-dokumentu horren edukiari buruzko txostenak.

4. Udal Plangintzako Aholku Batzordeak esku hartzea nahitaezkoa den espedienteetan, Batzorde horrek hilabeteko epea izango du txostena egiteko, betiere artikulua honen aurreko zenbakietan adierazitako izapide-dokumentua aztertzen duen Batzordearen bilkura egiten den egunetik zenbatzen hasita.

5. Era berean, Aholku Batzordeak beste hirigintza-antolamenduko plan batzuen edo beste hirigintza-tresna batzuen espediente guztiak jasotzeko eta aztertzeke aukera izango du, baldin eta gutxienez ere zinegotzi ez diren hiru batzordekidek hala eskatzen badute. Kasu horretan, txostena egiteko epea bat

etorriko da hasierako onespeneren ondoren espediente horrek jendaurrean egon beharko duen epearekin.

6. Udalak Aholku Batzordeak planteatutakoez bestelako irtenbideak hautatu baditu, behar bezala justifikatu beharko du hori hirigintza-espedientea behin betiko onartzeko egintzan.

7. Edonola ere, txosten hori ezarritako epeetan egiten ez bada, espedientea onartzeko ardura duten udal-organoek espedientea bideratzen jarraitu ahal izango dute, eta behin betiko onespeneren egintzan ez da zertan aintzat hartu epez kanpo aurkeztutako txostenen edukia.

8. Artikulu honen 1. atalean aipatzen den edozein espedientearen hasiera administrazioaren kabuz jakinaraziko die Udalak zinegotziak ez diren Aholku Batzordeko batzordekideei.

II. KAPITULUA

UDAL PLANGINTZAKO AHOLKU BATZORDEAREN OSAERA

6. artikulua. Osaera

6.1. Kide hauek osatuko dute Udal Plangintzako Aholku Batzordea:

a) Lehendakaria: alkatea izango da Aholku Batzordeko lehendakaria; dena den, udalbatzako edozein zinegotziren esku utz dezake lehendakaritzaren jarduna. -

b) Lehendakariordea: hirigintza arloan eskumena duen udal saileko zinegotzi titularra izango da. Lehendakariak bezalaxe, udalbatzako edozein zinegotziren esku utz dezake lehendakariordetzaren jarduna. Lehendakari kargua hutsik badago, edo lehendakaria bertaratzen ez bada edo gaixorik badago, lehendakariordeak ordezkaturako du lehendakaria, baldin eta lehendakariak beste inoren esku utzi ez badu.

c) Zinegotzi batzordekideak eta alderdi politikoetakoak:

c.1) Ingurumen arloan eskumena duen udal saileko zinegotzia.

c.2) Udalbatzan ordezkariak izan behar duten alderdi politiko guztietako ordezkari bat, alkatearen, lehendakariordearen eta ingurumen saileko zinegotziaren alderdietakoak izan ezik.

d) Zinegotzi ez diren batzordekideak, gehienez ere 21, eta honela banatuta:

- d.1) Zarauzko auzo-elkarte bakoitzeko batzordekide bat –gehienez ere 3 batzordekide izango dira –
- d.2) Udalerri mailan jarduten duen talde ekologista bakoitzeko edo ingurumenaren arloko talde bakoitzeko batzordekide bat –gehienez ere 2 batzordekide izango dira –.
- d.3) Zarauzko hezkuntza-komunitateko ordezkari bat.
- d.4) Zarauzko txikizkako saltzaileen elkarteetako ordezkari bat.
- d.5) Enpresa-elkarteetako ordezkari bat.
- d.6) Nekazaritza arloko sindikatuetako edo elkarteetako ordezkari bat.
- d.7) Sindikatu orokorretako ordezkari bat.
- d.8) Minusbaliatuen elkarteetako ordezkari bat.
- d.9) Lanbide-elkargoetako ordezkari bat.
- d.10) Zarauzko hirugarren adinekoen elkarteetako ordezkari bat.
- d.11) Zarauzko gazteen elkarteetako ordezkari bat.
- d.12) Zarauzko ostalaritza elkarteetako ordezkari bat.
- d.13) Zarauzko Emakumeen Kontseiluko ordezkari bat.
- d.14) Zarauzko kirol klubetako ordezkari bat.
- d.15) Etxea izateko eskubidearen aldeko Zarauzko elkarteetako ordezkari bat.
- d.16) Etorकिन elkarteetako ordezkari bat.
- d.17) Aurreko ataletan ordezkariak ez dauden kultura, kirol, gizarte, eta beste arlo batzuetako entitateak ordezkariak dituen interes orokorreko elkarte bakoitzeko ordezkari bat –gehienez 2 batzordekide izango dira –.

e) Idazkaria: hirigintzaren arloan eskumena duen saileko udal-funtzionario arduraduna, edo ordezkari jartzen duen funtzionarioa. Idazkariari dagokio Aholku Batzordeari laguntzea eta aholkuak ematea, betiere lehendakariaren zuzendaritzapean.

6.2. 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, xedatutakoa betetze aldera, beharrezko neurriak hartuko dira Udal-plangintzako Aholku-batzordean gizonen eta emakumeen arteko oreka lortzeko.

7. artikulua. Batzordekideen ordezkariak

1. Ordezkatzen dituzten entitateek hautatuko dituzte batzordekideak. Postu bakoitzeko titularra eta bi ordezkari hautatuko dira. Alderdi politikoek zinegotzi ez diren pertsonak hauta ditzakete batzordekide nahiz ordezkari izateko.

2. Seigarren artikuluko d.10, d.11, d.13 eta d.15 epigrafeetan aipatu diren entitateen kasuan izan ezik, Aholku-batzordeko ordezkariak hautatu ahal izateko, dagokien Elkarten Erregistro Orokorrean egon beharko dute inskribatuta elkarteek. Horrez gain, auzo-elkarteek, saltzaile-elkarteek eta kultura, kirol eta gizarte arloko elkarteek Zarautzen izan beharko dute egoitza, eta Zarautz izan beharko dute berariazko jardun-esparrua.

3. Lehendakariak, lehendakariordeak edo batzordekideetako edozeinek proposatuta, honakoek -batzordeko kide izan gabe- hartu ahal izango dute parte Aholku Batzordeko bileretan, hitzarekin baina botorik gabe:

3.1. Hirigintza-planak idazteaz arduratzen diren teknikariak.

3.2. Hirigintza, Ingurumen, Herrilan, Azpiegitura eta Zerbitzu arloetako udal-teknikariak.

3.3. Hirigintzako, ingurumeneko, kulturako, kiroleko, hezkuntzako, gizarte-gaietako eta beste arlo batzuetako izen handiko adituek.

8. artikulua. Batzordekideen izendatzea eta kargu uztea.

1. Alkateak izendatuko ditu Aholku Batzordeko kideak, baina izendatzeko proposamena honako ataletan ezarritakoaren arabera egingo da:

a) Alderdi politikoetako ordezkariak, alderdiek beraiek proposatuta.

b) Gainerako ordezkariak, dagokien ordezkariak-organoei proposatuta. Batzordean parte hartu nahi duten entitateen kopuruak gehieneko ordezkariak kopurua gainditzen badu, eta elkarte horien artean adostasunik ez badago, Batzordeko lehendakariak ezarriko du parte hartzeko modua -zozketa bidez, txandakatze bidez, batera bertaratzearen bidez, edo egoki irizitako beste formula baten bidez-.

2. Batzordekide izendatuak izan aurretik, pertsona horiek kargua onartu beharko dute.

3. Aholku-batzordeko kide guztiek, nolana ere, Udalbatzaren agintaldia amaitzen denean utziko diote batzordekide izateari.

4. Honako kasuetan ere, kargua utzi beharko dute:

- a) Espresuki uko egiten dutenean.
- b) Epai irmo batek kargu publikoa betetzeko ezgaitasun edo ezgaitzerik adierazten dienean.
- c) Batzordekide izaera euren karguagatik dutenek, kargu hori galtzen dutenean.
- d) Proposatutako zituen elkarteak kargutik kentzen dituztenean.
- e) Erregelamenduan jasotako betebeharrak behin eta berriro betetzen ez direnean.

5. Hutsik geratzen diren postuak, bestalde, hasieran izendatzeko erabili zen modu berdinean beteko dira.

9. artikulua. Kalteordainak

Aholku Batzordeko kideek ez dute haien funtzioak betetzeagatik inolako ordainsaria jasotzeko eskubiderik izango.

III. KAPITULUA

FUNTZIONAMENDUKO ARAUBIDEA

10. artikulua. Ohiko eta ezohiko bilkurak

1. Udal-plangintzako Aholku-batzordea ohiko bilkuretan bilduko da batzordearen txostena nahitaezkoa duten plangintza-espedituentzako aztertze eta betetzearen eraginez, 5. artikuluan ezarritakoaren arabera. Txosten hori jaulkitzearekin amaituko da ohiko bilkura hori. Edonola ere, urte bakoitzean gutxienez ere ohiko bilkura bat egingo da, urteko lehen hiruhilekoan. Bilera horretan, plangintza zenbateraino garatu den eta urte horretarako zein aurreikuspen dauden adieraziko da.

2. Dena den, ohiko bilkurez gain, Batzordeak ezohiko bilkurak egin ditzake premiazko kasuak daudenean, edo hala komeni denean. Ezohiko bilkura horiek lehendakariak berak deituko ditu, bere ekimenez edo batzordekideen heren batek gutxienez eskatuta.

11. artikulua. Bertaratze quoruma

Bertaratze quoruma. Bilkurak egiteko behar-beharrezkoa izango da lehendakaria, idazkaria eta gutxienez batzordekide kopuruaren erdia agertzea. Quorum hori lortzen ez bada, Batzordea bigarren deialdian eratuko da, ordu erdi geroago, eta ez da behar izango quorumik, beti ere bertan badaude lehendakaria eta idazkaria; alabaina, espresuki jasoarazi beharko da quorumik eza bilkura horri dagozkion txostenetan eta aktetan.

12. artikulua. Bilkuren deialdia

1. Aurrerapen agiriak edo, halakorik balego, hasierako onespeneko agiriak jendaurrean jarri baino lehen egingo dira deialdiak. Bilerak edo bilkurak egin baino bost lanegun lehenago, gutxienez, egin beharko da bilera edo bilkura horien deialdia. Deialdiari bilkuraren gai-zerrenda gaineratu beharko zaio beti.

2. Deialdia egin baino hiru egun lehenago egon beharko dute idazkaritzaren esku aztertu beharreko gaien eskariek.

3. Gai-zerrendan agertzen ez den gairik ezingo da eztabaidatu edo erabaki. Nolanahi ere, gai-zerrendan ez dagoen beste edozein gai premiaz eta bilkurari hasiera eman aurretik gai-zerrendan sartzea proposatu ahal izango du Aholku-batzordeko lehendakaritzak – bere ekimenez edo batzordekideetako edozeinek eskatuta–.

13. artikulua. Eztabaidak

Batzordearen lehendakaritzak bilkurak zuzenduko ditu, eztabaidak antolatuko ditu, eta bilkuren martxa ona bermatzeko neurri egokiak finkatuko ditu.

14. artikulua. Lan-batzordeak

1. Lan-batzordeak eratu ahal izango dira hiri-plangintzarekin lotzen diren gai zehatzak berariaz aztertzeko. Aholku Batzordearen gehiengoak beharrezkotzat jotzen duenean ere eratu ahal izango dira.

2. Aholku Batzordeak finkatuko du lan-batzorde horien osaera, izena eta funtzionamendua.

3. Lehendakaritzak beharrezko -edo egoki- jotzen duen udal-aholkularitza

teknikoa eskatuko du, baita kanpoko aholkularitza ere.

4. Aztertu dituzten gaien berri emango diote lan-batzordeek Aholku Batzordeari.

15. artikulua. Erabakiak hartzea

1. Aholku Batzordearen erabakiak bertaratuen gehiengo soilez hartuko dira. Berdinketarik gertatzen bada, lehendakaritzak du kalitatezko botoa. Edonola ere, boto partikularrak ezarri ahal izango dira, eta erabakiarekin bat ez datozen aldeek planteatutako eragozpenak jasoarazi ahal izango dira.

2. Hartutako erabakiak idazkaritzak egingo duen akta batean jasoko dira. Akta hori aztertzen ari den hirigintza-espeditarearen parte izango da. Erabakiei hirigintza-antolamenduko proposamen zehatzak edo ordezeko aukera zehatzak gaineratu ahal izango zaizkie. Haatik, proposamen edo ordezeko aukera horiek ez dira Udalarentzat lotesleak izango.

16. artikulua. Funtzionamenduko barne arauak

Aholku Batzordeak funtzionamenduko barne-arauak ezarri ahal izango ditu eta lan-taldeak eratu ahal izango ditu haren barnean, betiere Erregelamendu honetan ezartzen denaren arabera.

17 artikulua. Lekua eta aktak

Aholku Batzordearen bilkurak udal-aretoetan egingo dira, eta bilkura horietako bakoitzaren akta egingo du idazkaritzak. Akta hori hamabost laneguneko epean helaraziko zaie batzordekideei, eta egiten den hurrengo bilkuran onartu beharko da.

18. artikulua. Bitartekoak atxikitzea

Hirigintza arloan eskumena duen udal sailari atxikiko zaio Aholku Batzordea, eta, horrenbestez, udal sail horrek jarriko ditu batzordearen funtzionamendu gokirako beharrezko bitartekoak.

IV. KAPITULUA

ANTOLAKETA

19. artikulua. Batzordearen antolaketa

Udal-plangintzako Aholku-batzordearen funtzionamendu organoak lehendakaria, lehendakariordea eta Batzarra dira.

20. artikulua. Lehendakariaren egitekoak.

1. Aholku-batzordearen helburuak bete daitezen bermatu eta ziurtatu.
2. Aholku-batzordearen batzarrak hartutako akordioak bete daitezen zaindu.
3. Batzordearen ordezkari izan beste erakunde, entitate eta batzorde batzuetan.
4. Aholku-batzordearen batzarrerako gai-zerrenda jarri eta deialdiak egin.
5. Aholku-batzordearen batzarretan buru izan eta bilerak zuzendu, ordena zaindu, eta, beharrezkoa bada, arrazoi justifikatuetan oinarrituta, bilerak bukatutzat eman.
6. Dagokion udal-organoari helarazi Aholku-batzordearen batzarrean onartutako eskaera, errekerimendu eta jarduera guztiak.
7. Aztertu beharreko gaiaren arabera, egoki iruditzen zaizkion pertsonak gonbidatu Aholku-batzordearen batzarretara, edo sor daitezkeen lan-batzordeetara, hitzarekin baina botorik gabe.
8. Lehendakari izaerari dagozkion egitekoak gauzatzea.
9. Lehendakari izaerari dagokion beste edozein egiteko.

21. artikulua. Lehendakariordea

Lehendakaria ez dagoenean, edo hark berariaz ordezkari izendatzen duenean, lehendakariordea izango da lehendakari, eta haren egitekoak beteko ditu.

22. artikulua. Aholku-batzordearen batzarra

1. Batzarra da Udal-plangintzako Aholku-batzordearen organo gorena, eta Erregelamendu honetako 6. artikuluan aipatzen diren kideek osatuko dute.
2. Hona hemen Aholku-batzordearen batzarraren zereginak:
 - a) Batzordearen lan programa prestatu eta jardueretan lehentasunak ezarri.
 - b) Deialdiko gai guztiei buruzko iritzia eman edo erabaki.

- c) Batzarraren jardueri buruz Udalbatzari informatu, eta jarraibideak eman.
- d) Hala badagokio, batzarraren aurreko bileren aktak onartu, eta hurrengo gai zerrendan sartzeko gai interesgarriak planteatu.
- e) Aholku-batzordeko buruak hala eskatuta organo espezifikoek egindako txostenen berri jakin.
- f) Bere eskumeneko gaiei buruzko txostenak eta azterketak egin, udal-gobernuko organoek hala eskatzen diotenean.
- g) Beste organo bati egokitu ez eta Udal-plangintzako Aholku-batzordeari dagokion beste edozein egiteko edo funtzio bete.

23. artikulua. Idazkaria

Seigarren artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta aholku-batzordeko lehendakariak zuzenduta, egiteko hauek izango ditu:

- a) Batzarraren bilerako deialdiak izapidetu, eta eguneko aztergaiak, bertan sartutako gaiei buruzko agiriak eta aurreko bilerako akta bidali.
- b) Aholku-batzordearen batzarretara joan, hitzarekin baina botorik gabe, eta bileraren akta egin.
- c) Artxibo eta erregistro zereginak egin, bai eta bere izaerari dagozkion beste egiteko guztiak ere.

V. KAPITULUA

KIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

24. artikulua. Aholku-batzordeko kideen eskubideak

1. Batzarretara joan eta horietan parte hartu, hitzarekin eta botoarekin.
2. Aholku-batzordearen batzarrak hartutako akordioak betetzeko egiten diren jardueri buruzko informazioa jaso.
3. Aholku-batzordearen aktak edo dokumentazioa eskuratu.
4. Aholku-batzordearen eremuan ekimenak eta interesak aurkeztu eta defendatu.
5. Udaleko Zerbitzu Teknikoen eskura dagoen informazioa eta proposamen bat garatzeko behar duena eskatu, Aholku-batzordearen bidez.
6. Erregelamendu honetatik edo legedi aplikagarritik etor daitezkeen beste betebeharrak batzuk.

25. artikulua. Aholku-batzordeko kideen betebeharrak

1. Batzarretan eta sortzen diren lan batzordeetan parte hartu, eta Aholku-batzordeak bere akordioak betetzeko sustatutako jardueretan lagundu.
2. Aholku-batzordea ondo garatu eta sustatu dadin lagundu.
3. Aholku-batzordearen edozein ordezkaritza galarazi, hark berariaz emandako ordezkaritarik ez badago.
4. Erregelamendu honetan xedatutakoa errespetatu eta bete.
5. Elkarte, talde edo kolektiboek euren estatutuetan egindako edozein aldaketa Udalarari jakinarazi, baldin eta aldaketa horrek inolako eraginik badu kideak izendatzeko Udalbatzarrak erabiltzen dituen irizpideetan.
6. Erregelamendu honetatik edo legedi aplikagarritik etor daitezkeen beste betebeharrak batzuk.

VI. KAPITULUA

HERRI KONTSULTA

26. artikulua. Herri kontsulta

1. Alkatetzak herri kontsultak egin ditzake herritarrentzako kontu garrantzitsuei edo hirigintza arloko gaiei buruz, baldin aurrez Aholku-batzordearen batzarrak gehiengo osoz hala erabakitzen badu, eta beti ere 7/1985 Legeak, Tori Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 71. artikuluan xedatutakoa jarraituta.
2. Aholku-batzordeak proposa dezake bere txostena izan duen gai batek biltzen dituela herri kontsultan jartzeko aurreko paragrafoan ezarritako baldintzak. Horretarako, izendatutako kide guztien gehiengo osoaren quoruma lortu beharko du.

VII. KAPITULUA

BATZORDEAREN IRAUPENA ETA DESEGITEA

27. artikulua. Agintaldiaren iraupena eta desegitea.

1. Aholku-batzordearen agintaldia dagokion Udalbatzaren agintaldiarekin bat etorriko da.
2. Udal-hauteskundeak egiten diren unean desegingo da Udal-plangintzako Aholku-batzordea.

3. Udalbatza berria eratu eta gero, Aholku-batzorde berria eratuko da.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

1. Erregelamendu honen seigarren artikuluan zerrendatutako partaidetza-tituluren bat duten elkarteek eta pertsonak Udal Plangintzako Aholku Batzordean sartzea eskatu ahal izango dute -hala nahi badute-, betiere erregelamendu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo hogeita lanegunen barruan. Alkatetzak eskaera horiei erantzun die, eta Aholku Batzordea eratzeko bilkurara deituko ditu onartutakoak.

2. Xede horretarako deituko den eratze-bilkuraren bidez eratuko da formaltasunez Udal Plangintzako Aholku Batzordea.

3. Aholku Batzordea eratu ondoren ere sartu ahal izango dira Aholku Batzordean Erregelamendu honetan xedatutakoa betetzen duten elkarteak, baldin eta zinegotzi ez diren batzordekideen gehieneko kopurua bete ez bada.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Erregelamendu honetan espresuki aurreikusten ez diren alderdietan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. Tituluko II. Kapituluaren xedatutakoaren araberrako funtzionamendua eta jarduna izango du Udal Plangintzako Aholku Batzordeak. Gainerako xedapenetan, berriz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak ezartzen duenari eta Tokiko Entitateen Antolamenduko, Funtzionamenduko eta Araubide Juridikoko Erregelamenduak (2568/1986 Errege Dekretuak) xedatzen duenari jarraituko zaio.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Erregelamendu honetan ezarritakoa aplikatu eta garatzeko beharrezko xedapen eta jarraibideak emateko ahalmena emango zaio Hirigintzaren arloan eskumena duen Gobernu Saileko titularrari.

AZKEN XEDAPENA

Erregelamendu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita 15 lanegunetara jarriko da indarrean.